



LEP 19-22: LANPOSTUAREN JABETZA ETA KONTRATUAK SINATZEKO JARRAIBIDEAK

Edukiak

1. Mezu elektronikoa jasotzea, lanpostuaren jabetza/kontratua sinatzeko....	1
2. eSinadura aplikazioan sartzea.	1
2.1.- "Ziurtagiri profesionala hodeian" erabiliz sartzea.....	4
2.2. "Ziurtagiri digitalak" erabiliz sartzea.....	5
.....	6
3. Dokumentuak sinatzea.....	6
3.1. Hizkuntza aldatzea, lehenago aldatu ez bada.	6
3.2. Dokumentuak sinatzea.	7
3.3. Sinatutako dokumentuan sartzea.	10

1. Mezu elektronikoa jasotzea, lanpostuaren jabetza/kontratua sinatzeko.

19-22 LEPeke hautaketa prozesuetan plaza bat behin betiko esleitu bazaizu, lanpostuaren jabetza edo lan kontratua sinatu baino lehen, honelako mezu elektronikoa bat jasoko duzu eSinaduratik:

2025/02/17 19:24:29

eSinadura aplikazioaren abisua


Beste eskaera bat jaso duzu

[Joan eskaerara](#)


Mezu elektronikoa bertan "**Joan eskaerara**" sakatuta, aplikazioan sartuko zara zuzenean.

Esteka honetan ere baduzu sartzeko aukera: [eSinadura](#)


2. eSinadura aplikazioan sartzea.



- Hasierako pantaila euskaraz agertzen da, baina hizkuntza aldatu dezakezu aplikazioan sartu baino lehen. Horretarako, sakatu goian eskuinaldean dagoen ikurra:



- Aplikazioan sartu ondoren, sakatu "hasi saioa honekin GILTZA" edo "acceder con Giltza", hautatu duzun hizkuntzaren arabera.



Hizkuntza aldatu ez baduzu, aplikazioan sartutakoan alda dezakezu, nahi izanez gero.

Bertan sartzeko, ziurtagiri digital bat izan beharko duzu indarrean:

- Hodeiko ziurtagiri profesionala.
- Ziurtagiri digitalak: Izenpe txartela, NAN elektronikoa, DZFN... Kasu honetan, "[idazki desktop](#)" sinadurarako tresna eduki behar duzu instalatuta.
- BakQ: BakQ erabiliz sartzeko, "[BakQ txartel birtuala](#)" izeneko softwarea deskargatuta eta aktibo izan beharko duzu. Sartu "ziurtagiri digitalak" aukeraren bitartez sartu.

Oraindik ziurtagiri digitalik ez badaukazu, bat eska dezakezu honako bide hauetako batetik:

- **UPV/EHUko langilea bazara, lantokiko idazkaritzan edo Lan Harremanetarako Zerbitzuan** eska dezakezu hodeiko ziurtagiri profesionala.
- Oraindik **UPV/EHUko langile ez bazara**, jarraian adierazitako edozein puntutan eska dezakezu ziurtagiria:
 - [BakOren eskaera puntuak](#).
 - [eNAN](#).
 - [Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria \(DZFN\)](#).

Prozesu osoan zehar segurtasuna bermatzeko, **proba bat egin dezakezu lehendabizi**, aukeratzen duzun ziurtagiriak ondo funtzionatzen duela egiaztatzeko: [sinatzeko proba](#)



2.1.- "Ziurtagiri profesionala hodeian" erabiliz sartzea.



Euskadiko identifikazio elektronikoa

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU-(e)k zure autentifikazioa eskatzen du.

Aukera ezazu hurrengo identifikazio sistema hauetatik zein erabili nahi duzun:

 **Ziurtagiri profesionala hodeian** 

 **Ziurtagiri digitalak**

Ezeztatu

www.izenpe.eus

cau-izenpe@izenpe.eus

- Dagokion aukera sakatu ondoren, bi pantaila zabalduko dira, bata bestearen atzetik.



UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA UPV/EHUEK ZURE AUTENTIFIKAZIOA ESKATZEN DU

NAN/AIZ

PASAHITZA

[Pasahitza ahaztu al zaizu?](#)

SARTU



UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA UPV/EHUEK ZURE AUTENTIFIKAZIOA ESKATZEN DU

Kodea *****ier.**res@***ehu.***eus-**(e)ra bidali da
Mesedez, sar itzazu 852 zenbakiarekin hasten den kodearen azken 4 digituak.

KODEA

Ez dut KODEA jaso (8)

SARTU



- Lehenak datuak eskatuko ditu (NANa + pasahitza).
- Bigarren pantailak gakoa eskatuko du (egiaztatzeko bigarren urratsa da, eta e-postan edo sakelakoan jasotzen da gakoa).

2.2. "Ziurtagiri digitalak" erabiliz sartzea.



Euskadiko identifikazio elektronikoa

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU-(e)k zure autentifikazioa eskatzen du.

Aukera ezazu hurrengo identifikazio sistema hauetatik zein erabili nahi duzun:

	Ziurtagiri profesionala hodeian
	Ziurtagiri digitalak

Ezetzatu

www.izenpe.eus


cau-izenpe@izenpe.eus

Aukera hau sakatutakoan, ziurtagiriaren pasahitza sartzeko pantaila bat irekiko da.

3. Dokumentuak sinatzea

3.1. Hizkuntza aldatzea, lehenago aldatu ez bada.

- Edozein bidetatik identifikaziorako datuak sartu ondoren, ontzien edukietan sartu ahalko zara.
- Lehendabizikoz sartu bazara plataforman, euskaraz agertuko da, balio lehenetsi gisa (baldin eta hizkuntza hasieran aldatu ez bada, noski).
 - Hizkuntza aldatzeko, ezarpenak aldatu besterik ez duzu egin behar: hautatu "Gaiak eta estiloa" atala, eta aukeratu GAZTELANIA edo EUSKARA.




3.2. Dokumentuak sinatzea.

- “Egiteke daudenak” ontzian, sinatzeke dauden dokumentuak agertuko dira:



- “Bizorea” modua aktibatuta hautatu ditzakezu dokumentuak, sakatutakoan pantailan ager daitezen.



- “Markatu” aukeraren bidez sinatzeke dauden dokumentu guztiak hautatzen diran. Banaka ere hauta daitezke.
- Aukera hori hautatu ondoren, “Sinatu” botoi berdea agertuko da, eta hautatutako dokumentua sinatzeko pantailara eramango zaitu.




The screenshot shows the eSinadura application interface. At the top, there are navigation buttons: SINATU (green), ITZULI (red), and EKINTZAK (blue). Below these are filters for DESMARRATU, SARRERA, EGUNERATUA, and BIZORA. The main area displays a list of documents with their status and actions. The status is 'Sinatu' (Signed) for all items.

Document Name	Status	Action
dokumentua sinatzeko 3	Sinatu	Irakurria dago
prueba firma tv	Sinatu	Irakurria dago
prueba visto bueno	Sinatu	Irakurria dago
prueba invitados	Sinatu	Irakurria dago
prueba pdf/a	Sinatu	Irakurria dago
prueba firma bloque	Sinatu	Berria da

At the bottom, it shows 'eSinadura v.3.7.3.1 (25/01/2024)' and 'Azken sarrera: 25/01/2024 12:00'.

- Sinatzeko botoiari eman ondoren, sakatu **"Onartu"**.



The screenshot shows the eSinadura application interface with a confirmation dialog box open. The dialog box is titled 'Sinatu (1)' and contains a text input field for a message. Below the input field, there are two buttons: 'ONARTU' (green) and 'EZEZTATU' (red). The background shows the same list of documents as the previous screenshot.

Dialog box content:


Sinatu (1)

Oharak:

1000 karaktere erabilgarri.

Buttons: ONARTU, EZEZTATU


- Jarraian, ziurtagiri digital baten bidez sinatzen baduzu, pantaila aktibatu egiten da, GAKOA sartzeko:



Ziurtagiriaren gakoa eskatzen du.

3.3. Sinatutako dokumentuan sartzea.

- Zeuk dokumentua sinatu ondoren, UPV/EHUn lanpostuaren jabetzak/kontratuak sinatzeko ardura duen langileak sinatzeko zain geratuko da. Sinatutako dokumentuak "Amaituak" ontzian ikusi ahal izango dituzu.
- Hiru puntuen ikurrean sakatuz gero, dokumentua deskargatzeko aukerak agertuko dira: jatorrizkoa –sinadurarik gabekoa– edo sinatutako dokumentua.



Ondoren, sinatutako dokumentua deskargatu ahalko duzu, nahi duzun lekuan gorde dezazun.

